
AITA MENNIN
EUSKARAREN ERABILERA
NORMALIZATZEKO PLAN ESTRATEGIKOA
2024-2027

2024ko urtarrila

AURKIBIDEA

1. Edukia	
1. SARRERA	3
2. HELBURUA ETA EZAUGARRIAK	4
3. HIZKUNTZA KUDEAKETA	5
3.1. Hizkuntza politika	5
3.2. Baliabideak	6
3.3. Komunikazioen kalitatea eta itzulpen politika	7
4. PLANA EBALUATZEA ETA BERRIKUSTEA.....	8
4.1 Planaren ebaluazioa	8
5. 2024-2027 EPEALDIKO LAN ILDOAK ETA HELBURUAK.....	9

1. SARRERA

Gure zentroen erabiltzaileen hizkuntz eskubideak bermatzeko helburuarekin, eta Euskararen Erabilera Normalizatzeko 10/82 Oinarrizko Legearen arabera, Aita Menniko zuzendaritzak eta langileen ordezkaritzak **Aita Mennin Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plan Estrategikoa** elkarrekin ezartzea erabaki dute.

Erakundeko langileek barneratuta dute euskarak duen garrantzia eta Aita Mennik erabakia hartua du Euskararen Normalizazio plana garatzeko erakunde osoan eta prozesu guztietan.

Euskara bere irudian eta lanean txertatzeak balio erantsia ekartzen dio erakundeari. Planaren helburu nagusia da euskararen erabilera eta presentzia areagotzea eta erakundearen kulturen eta sisteman integratzea.

AITA MENNIko planaren misioa honako hau da:

Euskara ere Aita Menniko lan eta zerbitzu hizkuntza izatea.

- ☐ Zerbitzu hizkuntzari dagokionez, Komunitate Ospitalarioko kide euskaldunekin euskararen erabilera bultzatuko da, horretarako beharrezkoak diren urratsak eginez.
- ☐ Lan hizkuntzari dagokionez, euskaraz lan egin nahi duen edonori aukera hori eskainiko zaio eta euskara ikasi nahi dutenei horretarako laguntza eskainiko zaie. Hornitzaile euskaldunekin euskara erabiliko da ahal den neurrian.

Hori guztia garatzeko Aita Menni 2014tik ari da Plana garatzen eta orduetik orain arte egindakoa eta 2020-2023 epealdian egindakoa kontuan hartuta 2024-2027 epealdirako Plana jarri da martxan.

Ondorengo lerroetan daude jasota 2024-2027 epealdirako Planaren helburuak, ezaugarriak, eta lan ildo nagusiak.

2. HELBURUA ETA EZAUGARRIAK

Euskara plan honen helburu nagusia da gure zentroetako egoliarren, erabiltzaileen eta profesionalen hizkuntz eskubideak osorik baliatu ahal izatea, euskararen erabilera eta presentzia modu aktiboan sustatuz, komunikazio eta lanerako hizkuntza gisa.

Plan honen helburua hiru printzipio osagarritan oinarrituta dago:

- ☐ Hizkuntz eskubideekiko errespetua
- ☐ Zerbitzuaren kalitatea hobetzea
- ☐ Euskara normalizatzeko prozesu osoan progresibotasun printzipioa mantentzea

Hona hemen planaren ezaugarriak:

- ☐ Kolektiboa eta integrala: langile talde osoarengan positiboki eragin nahi du.
- ☐ Zeharkakoa: erakundearen kudeaketa arlo guztiak inplikatzeko ditu. Epe ertain eta luzerako estrategia bat da.
- ☐ Dinamikoa: progresiboa da eta aldatu egiten da etengabe.
- ☐ Malgua: neurritan egiten da, dauden premien eta aukeren arabera.

Aplikazio eremua

Plan honetako neurriak Aita Menni osatzen duten zentro guztietan aplikatuko dira.

Iraupena

Planaren iraupena lau urtekoa izango da, 2024tik 2027ra artekoa. Epealdi horretan euskara normalizatzeko planean jasotako irizpide edo neurrietako bakoitza gauzatzen joango da.

Ebaluazioa

Plan honetako 4. puntuan aurreikusten denez, urtero ekintzen jarraipena egingo da, ezarritako helburuak betetzen direla egiaztatzeko.

Urteko ebaluazioaren helburua da aurreikusitako ekintzen betetze mailaren bidez 2024-2027 epealdirako zehaztutako helburuen balorazioa egitea, abiapuntuko eta ondorengo egoera alderatuta.

Zehaztutako adierazleen betetze maila eta irakurketa kualitatiboa eginda, egingo da lau urterako zehaztutako helburuen balorazioa epealdiaren amaieran. Hala erabakiz gero, kanpo ebaluazio prozesu baten bidez egingo da balorazioa (Bikain ebaluazio prozesuaren bidez adibidez).

Planaren berrikuspena

Euskara batzordeak egingo du eta Zuzendaritzan aukeztuko du Plan estrategikoaren amaieran.

3. HIZKUNTZA KUDEAKETA

4.3.1. Hizkuntza politika

Plan Estrategikoa eta bere aplikazio eremua

- a. Plan Estrategiko honen aplikazio eremua Aita Menni izango da eta Plan honetan zehaztutako arau eta neurriak bete beharko dira Aita Menniko zentro, arlo eta zerbitzu guztietan.

Hizkuntza irizpideak

Aita Mennin euskararen erabilera areagotzeko zehaztuta eta eguneratuta daude ondorengo arloetarako erabilera irizpideak:

1. Erakundearen irudia
2. Bezero eta herritarrekiko harremana
3. Barne komunikazioa eta lan-tresnak
4. Pertsonen kudeaketa
5. Kanpo harremanak
6. Kudeaketa sistema

Irizpideen laburpen taula:

HIZKUNTZA IRIZPIDEAK		
ERAKUNDEAREN IRUDIA	Errotuluak eta oharrak Webgunea, publizitatea Jende aurreko ekitaldiak	Euskaraz edo elebitan
BEZEROAK HERRITARRAK	Harreran Egoilar, erabiltzaile eta familiekin ahoz eta idatziz	Lehen hitza euskaraz Dokumentu orokorrak elebitan Harremana egoiliar, erabiltzaile eta familiekin haiek erabakitako hizkuntzan
BARNE KOMUNIKAZIOA LAN TRESNAK	E-mail eta dokumentu orokorrak Bilerak Ordenagailuak	Idatzi eta dokumentu orokorrak elebitan Bileretan erabilera bultzatu Ordenagailuak euskaraz izatea bultzatu
PERTSONEN KUDEAKETA	Idatzi estandarizatuak: <i>egutegiak, tfono zerrendak, baimenak...</i> Langileen formazioa	Idatzi estandarizatuak euskaraz edo elebitan Langileen formazioan aukerak landu
KANPO HARREMANAK	Administrazioarekin Hornitzaileekin	Lehenengo hitza euskaraz Solaskideak aukeratutako hizkuntzan Dokumentu orokorrak elebitan
KUDEAKETA SISTEMA	Langileen kontratazioa Euskarazko formazioa	Euskara maila betetzea eskatzen den zerbitzuetan eta lehiaketetan lanpostuari dagokion euskara maila bermatu Euskara ikasteko baliabideak eskaini

Arlo bakoitzean euskara erabiltzeko ardura duen pertsona izango zehaztuta dauden irizpideen betetze mailaren arduraduna.

Lidergoa, estrategia eta transbertsalitatea

- a. Aita Menniko Euskararen Plan Estrategikoa garatzeko erantzukizuna zuzendaritzarena izango da.
Euskara batzordea plana bultzatu eta garatzeaz arduratuko da, eta jarrera aktiboa hartuko du planaren sustapenean, zentro, arlo eta zerbitzu guztietan.
- b. Aita Menniko Euskara batzordeak ardatz edo arlo berriak ezarriko ditu, helburuak zehazteko. Euskara plana normalizatzeko helburuak eta neurriak urteko kudeaketa planean jasoko dira.
- c. Zentro bakoitzeko koordinatzailea arduratuko da bere eskumenekoak diren zerbitzu eta unitateetan euskararen erabilera normalizatzeko programa espezifikoak gauzatzeaz, eta horretarako langileen inplikazioa bultzatuko du.
- d. Euskararen erabilera normalizatzeko helburu eta neurriak kalitate eskakizunen barruan sartuko dira.
Aurreikusitako adierazle batzuk zehaztuko dira eta, estrategiaren garapenaren eta helburuen arabera eguneratu eta aldatu ahal izango dira. Plan Estrategiko honetarako honako hauek izango dira:

d.1) Aita Menniko pazienteei egindako gogobetetze inkestetan euskararen erabilerari dagokionez jasotako gogobetetze eta adostasun maila.

d.2) Aita Menniko langileen euskararen erabilera barne komunikaziorako hizkuntza gisa.

Hizkuntz eskubideen urraketaekin lotutako kexen erregistroa eta jarraipena

- a. Hizkuntz eskubideen urraketaekin loturiko kexa eta erreklamazioei dagokienez, Aita Mennik kexa guztiak erregistratuko ditu eta jarraipena egingo die.
- b. Unitate bakoitzeko buru edo arduradunaren erantzukizuna izango da bere zerbitzuari dagozkion kexak argitzea eta erantzuna ematea.

3.2. Baliabideak

Euskara Batzordea

Aita Mennin Euskararen Normalizazio Plan Estrategikoa garatzeko Euskara batzorde bat dago. Batzordea Aita Menniko zuzendaritzaren erabakiz eratu da ofizialki, eta foro horretan hartzen dira planeko neurriak eraginkorki betetzeko behar diren erabaki nagusiak.

Euskara batzordea hilean behin bilduko da (abuztuan izan ezik) eta enpresako zentro, arlo eta zerbitzuetako ordezkari adierazgarriek osatuko dute. Ordezkariak Euskara Batzordeak proposatu eta zuzendaritzak onartuko ditu.

Euskara batzordean kanpo aholkularitzak ere parte hartuko du, adostutako helburuak gauzatzeko aholkularitza eta laguntza emanez.

Euskara batzordea arduratuko da hizkuntza normalizatzeko prozesuak eskatzen dituen zeregin tekniko espezifikoek, helburuen planifikazioaz, koordinazioaz, jarraipenaz eta Planeko normalizazio neurrien ebaluazioaz.

Zuzendaritzak onespina emango du eta zehaztuko ditu plana behar bezala inplementatzeko behar diren baliabideak. Ondoren, jarraipena egingo die zehaztutako helburuei. Planteatzen diren hobekuntza helburuak, eta aurreikusitako ekintzak eta emaitza, koherenteak eta neurrikoak izango dira.

Kanpo aholkularitza, zerbitzu teknikoa

Planaren inguruko aholkularitza eta laguntza emateaz arduratuko da eta baita euskarazko testuak egokitu, zuzendu eta itzultzeko zereginez ere.

Zuzendaritzak hartuko du Planeko irizpide eta neurriak komunikatzearen eta aplikatzearen ardura, baina aholkularitza edo zerbitzu teknikoaren zeregina izango da Planaren alderdi teknikoei jarraipena egiten laguntzea zentro, arlo nahiz zerbitzuetan.

3.3. Komunikazioen kalitatea eta itzulpen politika

Kalitate eta funtzionaltasun irizpideak idatzizko komunikazioetan

Aita Mennik kalitatezko idatzizko komunikazioak sustatuko ditu, hau da, testu zuzen, original, egoki eta argiak, egitura logikoa eta diseinu zaindua dutenak, azken helburua ulergarritasun optimoa izango da.

Aita Menniko Euskara batzordeak, aholkularitza edo zerbitzu teknikoaren bitartez, testuen idazketari eta itzulpenei buruzko laguntza eskainiko du. Testuak edo dokumentuak sortzen dituzten langileek gai izan beharko dute testoak egoki idazteko.

Terminologia

Aita Menniko Euskara batzordeak, aholkularitza edo zerbitzu teknikoaren bitartez, bere jardute eremuko arlo profesionaletan erabili beharreko euskarazko hiztegi espezializatua bildu, normalizatu eta zabaltzeko lan sistematikoa egingo du.

4. PLANA EBALUATZEA ETA BERRIKUSTEA

4.1 Planaren ebaluazioa

Ebaluazioak baliagarria izan behar du ezarritako helburu guztiak lortzeko; baita planeko helburuen betetze maila norainokoa den zehazteko ere.

Euskara batzordeak planean jasotako ekintzen hileroko jarraipena eta urteko ebaluazioa egingo ditu, ezarritako helburuak betetzen direla egiaztatzeko.

Zuzendaritzak urteko emaitzak aztertuko ditu, Euskara batzordearen zereginak berrikusiko ditu, eta hobetzeko arloak eta helburu posibleak, onartuko ditu.

Planaren epealdiari dagokion ebaluazioa ere egingo da eta helburua izango da aurreikusitako helburuen betetze maila zehaztea, horretarako zehaztutako adierazleen bitartez. Egindako aurrerapausoen balorazioa egingo da, planaren epealdi hasierako egoera eta amaierako egoera alderatuta.

Hobekuntzaren emaitzak jakinaraztea

Planaren bidez lortutako hobekuntza emaitzak erakundeko gainerako kideei jakinaraziko zaizkie, enpresako ohiko kanalak erabilita.

5. 2024-2027 EPEALDIKO LAN ILDOAK ETA HELBURUAK

2024-2027 epealdirako Plan Estrategikoa abiatuko da euskarak aurreko lau urteetan izandako garapenetik. 2020-2023 epealdiaren ebaluazioan jasotako indarguneak eta aurrera egiteko palanka nagusiak jasoko ditu plan honek.

Txostenaren hasieran jasota dago planaren azken helburua dela gure zentroetako egoiliarren, erabiltzaileen eta profesionalen hizkuntz eskubideak osorik baliatu ahal izatea, euskararen erabilera eta presentzia modu aktiboan sustatuz, komunikazio eta lanerako hizkuntza gisa. Bide horretan aurrerapausoak emateko hainbat lan ildo ezarriko dira.

Planaren lan ildo nagusiak izango dira:

- 1- Hizkuntzaren kudeaketa sendotu
 - Hizkuntza politikako irizpideak sendotu (betetze maila eta edukia eguneratuta behar denean).
 - Adierazle nagusiei jarraipena egin
 - Hizkuntza kudeaketa sisteman txertatu (erabiltzaileen aukera)
 - Urteko aurrerabideak Bikaineko aurretikosten eremuan txertatu
- 2- Langileen ezagutza handitu
 - Euskararen ezagutza handitzeko baliabideak eskaini (formazioa eta diru-laguntzak)
 - Ulermena landu
 - Euskaraz sortzeko gaitasuna indartu (kontratazioa eta trebakuntza)
 - Gaitasun orokorra etengabe elikatu
 - Urtero eguneratu ezagutza errolda eta euskararen ezagutza kontratazio berrietan
- 3- Erabilera handitu
 - Lan bileretan euskarari lekua egin. Aukerak aztertu eta baliatu.
 - Lan tresna informatikoak euskaraz erabiltzea sustatu
 - Gehien erabiltzen diren dokumentuak identifikatu eta falta direnak euskaratu
 - Erabiltzaileen hizkuntza aukera erregistratu eta kudeatu
 - Zerbitzua barruan ematen duten hornitzaileen lanketa egin.
 - Urtero neurtu eta eguneratu barne erabilera eta euskarazko zerbitzuak
- 4- Euskararen aldeko jarrera indartu
 - Zentroetako euskara koordinatzaileei (erreferenteak) euskararen eta euskara planaren inguruko prestakuntza eman.
 - Euskararen aldeko ekimenak antolatu

Aurrerabidea neurtzeko adierazle nagusiak eta bakoitzean lortu nahi diren helburuak ondorengoak dira:

- Bikain ebaluazioan 2019an, 350-399 puntuazioa lortu zen 2023-2027 epealdirako helburua izango da 499-550 puntuaziora iristea.
- Langileen euskara ezagutza datua izatea eta ezagutza handitzea:
 - Zentro guztietako kontratazio berrietan derrigortasun indizea betetzea.
 - Zentro guztietako langileen ezagutza handitzea urtez urteko datuak kontuan izanda.
- Zerbitzu-hizkuntzan euskararen erabilera handitzea:
 - Egoiliar eta Erabiltzaile euskaldunei zerbitzua euskaraz eman ahal izateko, zerbitzu nagusia ematen dieten langileen (erizainen-laguntzaileen) euskara gaitasuna handitzea, urtez urteko datuak kontuan izanda.
 - Hala nahi duten Egoiliar, Erabiltzaile eta familia euskaldunek idatzizko dokumentuak euskaraz jasotzeko aukera izatea.
- Lan-hizkuntzan euskararen erabilera handitzea:
 - Zentro guztietako ahozko erabilera handitzea urtez urteko datuak kontuan izanda.
 - Zentro guztietako bileretako erabilera handitzea urtez urteko datuak kontuan izanda.
 - Barne dokumentu erabilienak euskaraz egotea.
 - Ordenagailuak euskaraz izateko aukera bultzatzea, erabilera handitzea.
 - Lan tresna informatikoak euskaraz izateko aukera bultzatzea urtez urteko datuak kontuan izanda.